BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2200

AGINDUA, 2013ko martxoaren 27koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Vicrila Fundazioaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Vicrila Fundazioaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.– 2013ko urtarrilaren 7an Herri Administrazio eta Justizia Sailean sartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan Vicrila Fundazioa inskribatzeko eskaria; aipatu fundazioa Vidriería y Cristalería de Lamiaco, S.A, Unipersonal-ek (Vicrila) eratu du. Eskariari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion.

Bigarrena.– Fundazioaren helburuak zilegi eta interes orokorrekoak zirela egiaztatzeko bildu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoak fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen, 2013ko otsailaren 28an.

2013ko martxoaren 27an, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eskatutako txosten osagarria sartu zen, Herri Administrazio eta Justizia Sailean; txosten hori fundazioaren estatutuetan jasotako hezkuntza- eta ikerketa-helburuen interes orokorrari buruzkoa zen.

Hirugarrena.– Fundazioen Erregistroak, 2013ko urtarrilaren 24ko idazkiaren bidez, dokumentazioan ikusitako akatsak zuzentzeko eskatu zien interesdunei, eta 2013ko urtarrilaren 31n, espedientean ageri den dokumentazioa sartu zen Herri Administrazio eta Justizia Sailean. Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek aztertu egin dute aurkeztutako dokumentazioa, eta jasota utzi dute eskatutakoarekin bat datorrela.

Laugarrena.– Honako hauek dira fundazioaren helburuak, estatutuen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera:

«Vicrila Fundazioaren helburua da Vicrila enpresaren gizarte-, kultura- eta industria-ondarea babestea eta nabarmentzea, Vicrilak enpresa- eta industria-arloan izan duen ibilbidearen eta historiaren berri ematen duten ekintzen bidez. Horretaz gain, zenbait jarduera sustatuko ditu, gizarte-, kultura-, hezkuntza-, ikerketa-, lankidetza-, mezenasgo- eta kirol-arloan, gizartearekin eta bere ingurunearekin lankidetzan.

Helburu zabal horien barruan, jarduera osagarrien memorietan garatuko diren jarduera hauek gauzatuko ditu, batik bat:

1.– Kultura-arlokoak:

1.1.– Vicrila Beiraren Museoa sortzea, enpresaren 125 urteko historia eta beira ekoizteko egungo prozesua jakinarazteko, bisitaldi gidatuen bidez.

1.2.– Dokumentu- eta argazki-funtsak zaintzea.

1.3.– Beirak Bizkaian izan duen historiari buruzko ikerketa egitea, ospe handiko historialarien eskutik.

1.4.– Vicrila enpresaren eta Bizkaiko beiragintzaren historiari buruzko liburu bat egitea.

1.5.– Fundazioaren web orriaren diseinua egitea, bere jardueren berri zabaldu eta jakinarazteko.

1.6.– Beiran espezializatutako liburutegi bat sortzea.

1.7.– Aldi baterako erakusketak antolatzea, Museo del vidrio de la Granja-rekin eta beste museo batzuekin lankidetzan.

1.8.– Gizarte-intereseko lehiaketak deitzea.

2.– Hezkuntza-arlokoak:

2.1.– Lanbide Heziketako ikastetxeekin harremanetan jartzea, beiragintzan espezializatutako Lanbide Heziketako erdi- edo goi-mailako titulazioa sortzeko.

2.2.– Gazteen artean beirarekin lortutako prestakuntza sendotzea praktika-sistema baten bidez, unibertsitatearekin eta inguruko udalerrietako lurralde-heziketako ikastetxeekin lankidetzan.

2.3.– Bekak, mailegu bigunak eta laguntzak ematea ikasleei, unibertsitateko edo lanbide heziketako gazte tituludunei, ekintzaile berriei, ikertzaileei, desgaitasunen bat dutenei edo gizartean baztertuta geratzeko arriskuan daudenei.

3.– Lankidetza-arlokoak:

3.1.– Giza talde ahulenen bizi-baldintzak hobetzea, Vicrilak industria- edo merkataritza-jarduera duen edo izan asmo duen eskualdeetan eta garapen-bidean diren herrialdeetan.

3.2.– Gizarte-egoera ahulean daudenentzako gizarte-jantokiak antolatzea, GKEekin lankidetzan.

3.3.– Desgaitasunen bat dutenak laneratzen laguntzea.

4.– Ikerketa-arlokoak:

Beiragintzarekin lotutako ikerketak eta azterlanak sustatu, finantzatu eta zabaltzea.

5.– Gizarte-, kultura- eta kirol-mezenasgoa:

5.1.– Interes orokorreko gizarte-, kultura- eta kirol- erakunde eta elkarteekin lankidetzan jardutea.

5.2.– Fundazioaren ingurunean, desgaitasunen bat dutenek, ikasleek, amateurrek nahiz profesionalek osatutako kirol-taldeei lagundu edo babesa ematea.

6.– Fundazioaren xedeak gauzatzen lagun dezakeen beste edozer».

Bosgarrena.– Estatutuetako 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera, fundazioaren egoitza Leioan (Bizkaia) dago, helbide honetan: Autonomia etorbidea, 12 (Lamaiako), eta fundazioak gehienbat Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ditu bere jarduerak.

Seigarrena.– Hasierako dotazioa 35.000 eurokoa da. Kopuru hori ordaindu dela agiri bidez jasota geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak 37.1.c) artikuluan.

Zazpigarrena.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, hala baitago aurreikusita fundazioaren estatutuetan.

Zortzigarrena.– Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran ezartzen denez, hauek izango dira:

Kargua	Patronoa
Lehendakaria	Luis Manuel Fernández Herrero
Idazkaria:	José Antonio Jáuregui Rodríguez
Diruzaina	María Blanca Uriarte López

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko bat erabiliz.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan.

Bigarrena.– Hartarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espedientea. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datuak eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa. Aplikatzekoak diren legeetan eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat etorrita eratu da fundazioa.

Ikusirik aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplikatu beharreko gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Leioako (Bizkaia) Vicrila Fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea, gaurko datarekin eta F-350 zenbakiarekin, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak zortzigarren egitate-aurrekarian aipatzen dira, eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak, hain zuzen ere Jose M.ª Rueda Armengot notarioaren aurrean, 2012ko abenduaren 19an egiletsitako eraketa-eskrituran jasotako zehaztapenekin bat etorriaz (Protokolo-zenbakia: 3169).

Bigarrena.– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta fundazioari bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 27a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.